

MUXIKA » INAMA

Ingurumen sailak Inamari espediente informatiboa ireki dio

Eusko Jaurlaritzak anpliazioa gelditzeaz gain, Inamari bost neurri-zuzentzaile betetzeko hiru hilabeteko epea eman dio

DANEL LAUZIRIKA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak Finsa-Inama enpresari espediente informatibo bat ireki dio, azken aldian gertatu diren isurketengatik. Espediente horrek oraindik izaera zigortzailerik ez badu ere, oraingoz Inamako anpliazioa egitea galaraziko du.

Eusko Jaurlaritzako ingurumen saileko prentsa arduradunen esanetan, «Inamari irekitako espedienteak ez du izaera zigortzailerik. Orain espediente hori Ingurumen Saileko abokatuak ikertzen ari dira. Beraiek erabakiko dute espedienteak izaera zigortzailea hartuko duen ala ez».

Espediente informatiboa kentzen ez dioten bitartean Inamak ezin izango du Muxikako instalazioa haunditu. Anpliazioa burutzeko enpresak Ingurumen Sailaren baimena behar du. Ingurumen saileko prentsa arduradunen esanetan, «nahi dutena egiten ez diegu utziko. Espedienteak irekita dagoenez anpliazioaren kontuan gauzak geldirik daude».

Hiru hilabeteko epea

Anpliazioa egin baino lehenago bere egungo egoera ingurugiroa babesteko neurrietara egokitu beharko duela adierazi dio Eusko Jaurlaritzako sail horrek enpresa galiziarrari. Inamak 2006ko irailaren 15erako Ingurumen sailak ezarri berri dizkion bost neurri zuzentzaile beteta izan beharko ditu. «Betekizunak exijitu dizkiegu. Inamako arduradunek neurri horiek beteko dituztela adierazi digute».

Inamak hiru hilabeteren buruan bete behar dituen bost neurri zuzentzaileetako bat egurra erretzeko Inamak erabiltzen duen galdara beste bategatik aldatzea da. Horrez gain, enpresa galziarrak beren jarduera guztien plan orokorra eta Oka ibaira isurketak egiteko duen akreditazioa aurkeztu beharko ditu,

Enpresa galziarrak bete beharreko beste neurri zuzentzaileak isurtzen dituen partikulak filtratzeko proiektu bat aurkeztea eta tximini bi neurtzeko sistema bat eratzea dira.

Inamren inguruko bilerak

Iragan astean Ibon Galarraga Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu-ordea eta Elisa Sainz de Murieta biodibertsitateko zuzendaria SOS Muxika herritarren elkarteko ordezkariekin bildu ziren. Bilera horretan Ingurumen saileko arduradunek SOS Muxikako kideei Inamaren jarduerak ingurugiroari egiten dion kaltea eragozteko Eusko Jaurlaritzak hartuko dituen neurriak azaldu zizkieten.

«Urte hasieran gurekin egindako batzarrean Ingurumen sailak konpromiso batzuk hartu zituen. Guk mahai gainean jarritako dokumentuak eta argazkiak egiaztatzeko, enpresarekin eta Muxikako Udalarekin berba egiteko konpromisoa hartu zuten», adierazi dute SOS Muxikako arduradunek.

Herritarren plataformako kideen esanetan, Ingurumen sailekoak «bost hilabete hauetan enpresarekin eta Udalarekin batu dira. Eusko Jaurlaritzako lau sailek Inamaren jardueretan konpetentzia zuzena dutenez, eta Muxikako Udalak Inamarekiko kontrol bat ezartzen ez duenez, Eusko Jaurlaritzak Udala alboratu eta bera hasi da zuzenean Inamarekin berbetan».

SOS Muxikakoek iragan asteko bileraren balorazio baikorra egin dute. «Ingurumen sailari eta sailburuordeari gurekin hartutako konpromisoak betetzea eskertzen diegu. Beraiek lehenengo pausoa eman dute. Orain gurekin hartu duten konpromiso berria atzeman ditugun irregularitateak Barne Sailari, Osasun Sailari eta Industria Sailari helaraztea da. Beteko dutela espero dugu».